

Derioko bideo aurkezpeneko berbak

Kultur Birika. Derio

Derioko ibilbide bideo hau, ohartuko zinien aparteko gogoz eta karinuz ondua izan dala, bai edukia, bai irudiak, bai berbak. Horretarako arrazoirik ez da falta. Labayru Fundazioa, lehenagoko Ikastegia, Bilbon eregi zan fundazio modura, baina Derion erne zan hasieran ereindako hazia, hor 1970. urte inguruan, eta Derion bota ditu sustraiak, urterik urte gero eta sakonagoak eta mardulagoak. Eta hementxe Derion joan da hazten, handitzen eta adarrak botaten urtez urte, harik eta gaurko egunera arte.

Labayru Fundazioaren ikertegia, artxibo-bibliotekak eta kulturgintzaren bihotza Derion dago gaur oraindino. Lehenagoko Seminario etxe nagusi horretan, eskoako edizifioaren 5. solairuan.

Deriok Labayruri bere egontokia emon deusan antzera, Labayruk be Deriora asko emon deusala ezin ginei ukatu. *Derioren* izena ezagun egiten eta Bizkaiko eta Euskal Herriko bazterretan zabaltzen asko lagundu dau gure erakundeak. Batez be Derioko Udako Euskal Ikastaroa udaro udaro hemen egin izan dalako hamarrurtekoetan, hasi 1970.ean eta hurrengo milurtekoan ondo sartu arte.

Demokrazia etorri eta handik urte gitxira, 80ko hamarkada inguruan, uda batzuetan 700 ikaslelik gora batzen ziran udetan euskera ikasten Derion, Bizkai osotik eta asagotik be etorritako ikasle euskaldunak. Bideo horretan agiri diran argazkietan, bata 60ko hamarkadako abade gaiena zan; guztiak baltzik jantzita. Baina bigarrena, Seminarioko erdiko mailadian gazteri ugariagaz egina, Derioko Udako Ikastaroaren kurtso amaiera batekoa da, 80ko hamarkada hasierakoa.

Euskal Biblioteka eta artxiboa be Labayruren Derioko egoitzan egon izanak be lagundu deutso Derioren ospeari. Labayru Fundazioari eskerrak, euskal hizkuntzaren eta etnografiaren ikertegi-ikastegi indartsu bihurtu da Derio azken berrogetaka urteetan.

Derioren bideo honen egileak Derion murgildurik bizi izan diranak dira. Jesus "Eguzki", berbaz entzun dozuena, Derioko Seminarioan luzaroko ikasle izana da. Eta Akaitze Kamiruaga, Labayruren Herri Ondare Atalaren arduraduna Derioko egoitzan.

Bideoa ikusi eta entzuneran, hainbat gomuta jatortaz neuri be gogora, Derioko herriagaz lotura estua dabenak. Hamar urte gaz Mungia, Zabalondo eta Artebakarretik datorren kamino zaharretik vespa baten atzean neure osaba abadeak ekarri ninduanekoa. Artotza galantak egozan orduan Seminario aurreko solo zabaletan, errepide zaharreraino ailegetan ziranak. Derioko beheko partean, San Migelen, etxebizitza torre luze hori egoan eta gorantzago etxe bloke luzenga bat.

Astintzeko tren geltokia, Derioko kurtzean beste bat eukana. Harexek egiten euskun Bilbora eroan-ekarria geroagoko urteetan. Tren horrexek arindu eutsen bizimodua Derioko eta Zamudioko bendejera askori, artean Santo Domingon gora eta Zabalbiden behera Atxuriko plazara bendeja-saltzen asto-otzarakaz joaten ziranai.

Gogora etorri jat, arratsaldetan, futbola edo beste kirolak egin ondoren Telleri bidetik arineketan Zamudiorantz egoan erreka-pozuan bainua hartzen joaten ginanekoa udetan. Han ikasi genduan batzuek uger egiten be.

Derioko futbol zelai ugariak, handi eta txikiak, frontoiak, saskibalo pistak, esku baloi zelaiak, ur barik ezagutu genduzan ugertokiak... Zer ez egoan orduan Derion! Eta Derioko abere-granjea, sasoi bateko ganadu-hobekuntzaren habia. Zenbat arineketa Granjako aldatzean gora, gero abiada bizian jaisteko Seminario erdira zuzentzen eban aurbeheratik.

Lezamatik Bilborako trenan zan askorentzat garrantzitsuena, edo Lutxanara joiana. Baina Deriotik urrun barik igaroten zan Mungiatik Bilbora etorren trenan be. Gure autobusak be Derioko bide-kurtzetik igaroten ziran Mungiarantz. Bideoan irudietan ikusi dogun Derioko udaletxe zaharra, bere aterpe luzangeagaz, busean ginoiazala beti ikusten genduan etxe gogoangarria, orduko Derioren ikurra.

Aldekone, Derioren goiko partea, bere eleiza barriagaz eta plazatxu politagaz. Oraindino diktaduraren aldia euskal jai ederren gertaleku izana; neska-mutil gazteak, euren kaiku jakeak soinean ebezala, txistu-hotsa eta dantza giroa nagusi.

Derio erdalduntzen joan, batez be beheko partea, industriak sorturiko behararen xuxuan, eta trenan lagun dala, honuntz agertu zan etorkin uholdearen eraginez. Eta Derion euskera entzun gura ebanak, orduan be, goi parteko baserri girora hurreratu behar. Edo Aldekonetik Loiurantz egozan etxeetara, edo Zamudiorantz egozan Geldoetako baserrietara.

Deriori eta ia Txorierrri osoari eragin deusan beste puntu bat be badago, herri honetan eta hasi Erandiotik eta Zamudiorainoko herri guztietan oinatz sakona itxi dauena. Bilbok diktadura denporan bata bestearen hurrengo iruntsi eban Txorierririk gehiena. Lehenengo, gerra ostetxoan Erandio. Eta osterago, Sondika, Loiu, Derio eta Zamudio. Lezamaraino ez zan heldu zorionez Bilboko uri gosesto salobrearen jan beharra. Etxegintzan, industriagintzan, urigintzan eta beste alderdi batzuetan aldakuntza biziak, bizkorregiak, neurriak ez orekarik bakoak erakarri zituan derriorezko atxiki-behar horrek. Horren osteak gaur egun be ondo agirian dagoz hondino be Txorierrriko herrietan, baina tamalez ez dago joandako urari presarik egiterik.

Azkenez, Deriok euskal herri-literatura alderditik be eskeini deuskuz ezusteko pozgarriak. Larrabeiti etxeak aitatzen dira bideoan. Baina Larrabeiti abizena be berto-bertokoa da Derion. Jose Migel Larrabeiti, Derioko Irakasle Eskolan euki neban ikasleak batu eustazan euskal erromantze zahar politenetariko batzuk bere amama zanari, Juana Tellaetxe andreari, 1985ean. Balada bata, Txorierrri honetan nekez jaso izan dana; *Neska ontziratua* izenez ezagutzen dana. Lehen ahapaldiak hau dino: “*-Isabelatxu, Isabelatxu, arren esan bat eidazu, / atian dauen kantore orri etor dila esaiozu*”. Ruper Ordorika kantariaren bertsinon bidez zabaldu da herri eta erbeste Derio-Zamudio buelta honetan lehenago kantetan zan balada zahar hau. Eta beste bertso sorta ezagun bat be, hau erlijiozkoa, batu eutsan Larrabeiti gure ikasle finak bere amamari. Oraindino jente edadekoak ezaguna dauena: “*Jesukristori kendu ezkeron / pekatuagaz bizia, / baldin ezpadot negarrik eiten / harrizkoa dot bihotza*”.

Gaur aurkezten dogun bideo honek Derioko herriaren lehena eta oraina kontrastean ikusten laguntzen deuskue. Gure ustez berebiziko garrantzia dauka lehengo mendeko 60ko hamarkadatik gora Deriok jasan dauen demografia, etxegintza eta natura osoaren itxuraldatzeak. Baina aldakuntza bortitzok gorabehera, geure zeregina da oraina lehenagaz sendo buztartzea, gerora landu daigun etorkizuna hobea, sendoagoa eta geure nortasunari eutsiagoa izan dadin.

Adolfo Arejita

2017-10-26